

Morena Herrera

Salvadortar feminista.

Emakumeen Giza
Eskubideen aldeko
borrokalaria.




Nire izena Morena Herrera da, El Salvadorren jaioa eta feminista.

Giza Eskubideen defendatzailea naiz baina, bereziki, emakumeen eskubideen borrokan oinarritzen dut nire lana. Gizarte borrokalari gisa aldarrikatzen dut nire burua. Hainbat erakunde eta elkarte ezberdinen kide naiz Ertamerika eta El Salvadorren bertan ere, hala nola, “La Colectiva Feminista para el Desarrollo Social”, “Agrupación Ciudadana por la despenalización del Aborto” edota “Concertación de Mujeres de Suchitoto”. “Las Dignas” elkartearen sortzaileetako bat naiz eta Mesoamerikako Emakume Defendatzaileen Ekimenaren kide baita. Cepal-ek bultzatutako emakume eta feministen erakunde sozialentzako eskualde funtsen zuzendaritza batzordean nago.

“La Colectiva Feminista” tokiko garapenerako erakundea

“La Colectiva”, azken aldian, asko hasi den erakunde feminista da. Tokian tokiko eta nazio mailan sare sendoak sorrarazteko helburu trinkoarekin lanean dihardu, hauek gizon eta emakumezkoen artean existitzen diren desparekotasun soziala behin betiko desagerrarazteko borrokan. Aipatutakoaz gain, emakumeak gure egunerokotasunean pairatzen ditugun beste bidegabekeri asko ere lantzen ditu, hala nola, etxebizitzak



inposatutako diskriminazioa, manifestaldietan orotariko sexu generoko pertsonak sufritutako baztertzak, eskubideak babesteagatik jasandako mehatxuak etab. Gauzak horrela, aliantza sare sendoa ere osatzen dugu zenbait elkarteekin lanean eginez.

Lau lantaldez osatutako erakundea da. Hauetako batek hemen bertan, Suchitoton, du bere egoitza, ni neu nintzen koordinatzaile nagusia 2017. urte amaiera arte. Ondoren, gazteek erakundearen baitan pisua eta lidertzak hartzen has zitezen barne prozesu bat sustatu genuen. Horri esker, gaur, koordinatzaile nagusia neska gazte bat dugu eta nik beste lanetan aritzen naiz, heziketa prozesuen sustapenean edota ezagutzen kudeaketan esate baterako.

“La Colectiva” zazpi lan ardatz nagusi ditu:

- Giza Eskubideen defendatzaileen erabateko babes feminista eskaintzea.
- Orotariko espazioetan esku-hartze aktiboa emakumeak indarkeriarik gabe bizi ahal izateko. Emakumeei laguntza zuzena eskaintzen diegu, politika sozial eta legeetan eragina dugu, bai formulazioan, bai ondorengo aplikazioa ere behatuz. Erakunde publikoetako langileekin eta poliziarekin lan egiten dugu, emakumeen arretan jokaera aldatzen duten miazteko, hau da, emakumeen eta neskatxen aurkako indarkeria, behingoz, delitu larri gisa jotzen duten ziurtatzeko.
- Ugaltze eta sexu eskubideak. Abortuaren despenalizazioaren aldeko estrategiak bultzatzen dituzten talde ezberdinek osatutako elkartearen parte da. Horretaz gain, Hezkuntza Ministerio eta beste zenbait aktoreekin batera, sexu eta ugaltze osasun kanpainen parte hartze zuzena du, baita ikastetxetan sexu heziketa ikastaroak sustatu ere. Nahiz eta ikasgeletan lantzea guztiz beharrezkoa dela oso argi izan, ez dugu gure lana bertara soilik bideratzen. Izan ere, irakasleak hezitu ez ezik, ikastetxe edota euren familietan bertan lidertza hartu dezaketen gazteak sustatzeko ahalegina ere egiten dugu.
- Udalerrri eta herri gobernantza. Udaletxeekin zuzenean lan egiten dugu haien erabakitze erantzukizuna errespetatzen dadin eta benetako emakumeen eskubideen aldeko politika eta programak sustatu ditzaten. Era berean, tokiko gobernantza jokaera hori ere nolabait eraberritu dezaten laguntzen ditugu.

- 
- Ekonomia feminista. Emakumeen ahalduntze ekonomikoa indartzea, familiaren zaintzak eta etxeko lanak ikusaraziz, eta lan horren banaketa demokratikoagoa eta parekoagoa planteatzeko beharra azpimarratuz. Honekin batera, landa eremuko emakumeen ekimen kolektibo eta ekoizpen agroekologikoetan euskarri lana egiten dugu.
 - Ingurune Justizia eta Feminismoa. Emakumeen lidergoei laguntzen eskaintzen diogu lurralde bakoitzeko ingurumen-arazoei konponbidea bilatu ditzaten. Ur eta Genero Ekitate programa bat garatu dugu, non prozesu ezberdinak sustatzen ditugu, hala nola, tokian tokiko Ur Komite eta Batzorde Komunitarioen indartzea. Halaber, sistema berarekin lan estua burutzen dugu haien zeregina soilik sistema bera kudeatzea ez dela ohar daitezen, baizik eta iturriak zaintzea, arroak miatzea edota lan aktiboagoa egitea pertsona guztiok planeta zaintzeko ardura izan dezagun ekoizpen-prozesuekin lotuta.
 - Emakumeen inguruko politikak eta parte hartze herrikoia. Tokiko lidergoak indartzea da bere ildo nagusia, ahal den heinean emakume feministen lidertzak sustatuz betiere. Radio de Todas izeneko irrati digitala sortu dugu eta irratsaio bat garatu ere, momentuz apala bada ere, etorkizun labur baten telebista guztiz feminista batean bilakatu dadin espero duguna.

Mesoamerikako Emakume Defendatzaileen Ekimena

Emakume defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra 2010. urtean hasi genuen. Haien eskubideak defendatu eta aldarrikatu izanagatik emakumeak nola bortxatzen zituzten identifikatu genuen aurretik jada. Hainbat erakundek bat egin genuen eta Mexikotik Nikaraguara luzatzen den sare bat sortu genuen, Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra, Costa Ricako defendatzaileekin ere loturak dituen.

Ertamerika eta Mesoamerikako errealitateak, eskubideak defendatzearen kasuan, gero eta arriskutsuagoak bilakatzen ari zirela antzematen hasi ginen. Horri aurre egiten saiatzeko, defendatzaileen aurka emandako erasoen erregistro baten sorrera bultzatu genuen eta, ondoren, sare nazionalak sortzen hasi ginen. Babesten diren eskubideen lan-arloa hedatzea ere lortu dugu. Sarea gero eta gehiago osotzen joan da eta, emakumeen eskubideen





defendatzaileak ez ezik, lurraldearen defendatzaileak, ingurumenaren defendatzaileak edota migratzaileen defendatzaileak ere badaude. Eskubideak defendatzeko eskubidea aitor dadin luze eta gogor borrokatu behar izan da.

El Salvadorren kasuan, “Red Salvadoreña de Defensoras” izeneko organoaren sorrera sustatu genuen, eskualdeetako sare ezberdinez osatuta dagoena. “Mesa por la Defensa del Derecho a Defender Derechos” elkartearen parte ere bagara eta Giza Eskubideen defendatzaileak erabat babesteko lege-proposamen bat aurkeztu dugu jada.

Ekimenak berak, “Protección Integral Feminista para Defensoras” izeneko lan-eredu baten sorrera bultzatu egin du. Emakume zein gizonezko defendatzaileak, gure eguneroko bizitzan, arrisku berberei aurre egin behar diegula ikusarazteko eta plazaratzeko modu bat dela uste dugu. Hala ere, emakume izate hutsagatik, gu arrisku horien jomuga bilakatzen gara, eraso bortitz edo kaltegarriagoak jasotzeko lehen lerroan kokatuz.

Autozainketa

Kontzeptualizazio hau autozainketa ildo batean islatu da. Hasiera batean, oso burugogorrak ginen ni bezalako askok, ez genion autozainketa honi behar bezalako arreta jartzen. Apurka-apurka, prozesu honek duen garrantzi politiko eta mugimendu beraren jarraikortasunean duen erabateko garrantziaz ohartzen joan naiz. Gu ekintza hauen erdigunean kokatu gaitzakeen jokabide proaktiboak bideratu ezean, azken finean, hainbeste gogaitu eta zapaldu gaituzten eskema berberak errepikatzera kondenatuak gaude, sustatzen ari garen aldaketa sozial guztiak bertan behera utziz. “Protección Integral Feminista” delako elkartearen autozainketa ardatz hau garatuz joan da eta Ekimen Mesoamerikarraren baitan gauden erakunde eta sare ezberdinek bertatik ikasten joan gara.

Prestakuntza eta ikaskuntza prozesuak ere garatu ditugu, bai sareena bera, bai munduko zenbait eskualdeetako esperientzia batzuen ere. Ikaskuntza hauek, oro har, elkartrukean ematen dira kasu gehienetan.

Antolatze eta politika egiteko testuinguru erabat adeitsu batetik nator ni, oinarri erlijioso batetik azken finean. Orduan, lankideak entzuterakoan, zalantza ugari pizten zitzaizkidan



nire barnean. Hala ere, behin bileren baitan egonda eta autozainketa prozesu hau hasita, guztiz konbentzituta nago erakundeak, eta edozein mugimendu azken finean, parte garen kide eta pertsonak bultzatu eta indartu egiten ditugula. Hau da, ezin ditugu erakunde, sare edo mugimenduak ildoak eta horiek integratzen dituzten pertsonak dituzten ikuspuntuak bereizi. Pertsonok ez dugu ez denbora amaigaberik ezta gaitasun amaigaberik. Beraz, guztiz beharrezkoa da gu geu zaintzen ikastea, gaitasun horiek sustatzen ikastea, mugimenduei epe luzera ekarpen handiagoa egiteko ahalmena izango baitugu. Niretzat oso garrantzitsua izan zen autozainketaren izaera politiko hau zehaztea, geure ekintzen erdigunean jartzeko gai garen emakumeekin egindako gizarte-eraldaketaren potentzialtasuna antzematea, kanporako entrega bakarrik gainditu eta. Geure beharrei eta ditugun mugei soilik ez begiratzea, tamalez, beti ezin izango baitira gainditu.

Abortua despenalizatzeko borroka El Salvadorren

1997. urtera arte, zigorrik gabeko hiru abortu forma ematen ziren El Salvadorren. Gerra amaitu ondoren eman ziren Bake Akordioekin, Zigor Kode berria ere eratzeke beharra aurkeztu zen, hiritar guztien segurtasuna bermatu eta antzinako Giza Eskubideen urraketak atzean uzteko helburuarekin. Testuinguru honetan ezabatu ziren zigorgabetasun abortua bermatzen zuten egoera hauek Zigor Kode berrian, 1998az geroztik indarrean duguna. Hau, gainera, ez zen hausnarketa edo eztabaida sakonen ondorio izan, baizik eta zenbait taldeek eta Elizako hierarkien presioen ondorioz, duten indar mediatiko eta botere ekonomikoaz baliatuz.

Zigor eredugarriak ezartzeko legedia propio bat garatu dute El Salvadorren, pobrezian bizi diren emakume gazteak helburu nagusi dituen, abortuak euren kabuz egin ez dituztenak. Gainera, bat-bateko erditzeak jasan behar izaten dituzte askotan, ospitaletatik urrun, euren etxebizitza propioetan, komunetan edota ukuiluetan izaten direnak sarri. Ospitaleetara heltzean, odolustuta heltzen dira asko zauri eta odol emarien ondorioz, shock egoeretan. Laguntza eske datoz erietxe publikoetara, pertsona pobeak soilik datozenetara. Heltzean, egiten dieten lehengo gauza “Abortuaren gaineko arreta eta ikerketa” protokoloa aplikatzea da. Hau egin eta berehala fiskaltza edota poliziaren esku uzten dituzte, eta azken hauek lehenengo 24 orduetan atxilotu behar dituzte. Horregatik ikusi ditugu sarritan emakume gazteak esku-oheetara bilurtuta.



Fiskaltza ikerketarekin hasten denean eta aste gutxiko abortua ez dela ikusten duenean, emakumeen erruduntasun eza aitortu dezaketen ikerketak aurrera eramanean beharrean, delitu mota aldatu egiten dute eta abortuaz akusatu ez ezik, hilketa leporatzen zaie zuzenean. Akusazio hauek ondorio oso larriak suposatzen ditu, erabat neurritz kanpoko zigorrak ezarritik eta 30, 35 edota 40 urteko kondenak ere ekartzen dituztenak. Prozesu judizial hauek ere oso maneiatuak daude gehienetan, non emakumeen errugabetasun-presuntzioa ez da batere bermatzen, Errepublikako Prokuradoretza Nagusiaren defentsa oso eskasa da eta emakumeek askotan ez dute ulertzen zer gertatu zaien eta zergatik ari diren horri aurre egiten.

2009. urtean “Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto” herri ekimenaren sorrera bideratu genuen, eta geroztik 42 emakume kartzelatik ateratzea lortu dugu, Evelyn Hernandez azken hau izanik. Pozik gauden arren, oraindik 16 emakume gehiago daude kartzela zigorra betetzen. Hauen ordezkari bilakatu gara eta guztiek askatasun osoa lortu arte borrokatzen jarraitzea erabaki dugu. Ospitalek behin betikoz emakumeak salatzeari uztea ere nahi dugu, hau ez da batere erraza izango, baina salaketak oraindik ere baitaude.

Medikuekin eskuz esku lanean ari gara eta, ospitalean salaketa bat jartzean, gurekin momentuan bertan kontaktuan jartzen dira, “X ospitalean neska atxilotu eta salaketa jarri dute”. Orduan, gure abokatu eta defendatzaileak erietxera bertaratzen dira eta bertan martxan hasten da tirabira lan hori. Neska askok epaiketak ekiditea lortu dute, edo behintzat hauek oso laburrak izatea, eta gurekin segurtasun osoa izatea. Lan prozedura hau zeharo berria den heinean, mediku eta erizainen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke aurrera eramatea.

“Unión Médica por la Salud y Vida de las Mujeres” elkartearen sorrera bultzatu dugu, ia herrialde osoko ospitaleetan eta 28 amaetxeetan presente dagoena gaur egun. Gu abisatu eta laguntzen gaituzte eta, are garrantzitsuago, gaixoez asko arduratzen dira. Haien erantzukizun zibila bete baino ez dute egiten, emakume hauen sekretu profesionala berma dadin, beraz, ez dira inola ere legediaren kontra aritzen.





Istorio pertsonala

15 edo 16 urte inguru nituen bigarren hezkuntzako gazte antolakuntza mugimenduetan hasi nintzenean, oso gazte beraz, oinarrizko eliz komunitateen parte ere nintzen. Monseñor Romero bera ere ezagutu nuen garai hartan. Autobusaren pasaia igo ez zezaten martxa bat antolatu genuen eta, han ginela, poliziak nire ikaskide bi harrapatu zituen, ia-ia bertan akatu ere. Gogoan dut oraindik ospitalera heldu nintzeneko sortu zitzaidan inpotentzia eta amorru bizi hori... Hala ere, hau ez zen kasualitate hutsa izan, edonondik heltzen zitzaizkigun “sarraski” hitza zuten notizi mordoak, Estatu edota Gobernuaren ezintasunaren aurrean erantzun bakarra errepresio bortitza baitzen.

Esan bezala, nire heziketa erlijiosoa izan zen abiapuntua, Askapenaren Teologiarekin nuen harremana zela eta. Eliza katolikoaren hierarkia eta doktrinarekin tirabirak izan ditut askotan, emakume eta pertsona ugari zapaltzen dituen. Hala ere, planteatutako humanismo hori asko miresten dut.

Hortik aurrera nire jarrera erradikalizatzen hasi zen. Hasiera batean auzo batzordeetan parte hartzen hasi nintzen, isilpeko antolakuntzak ziren eta ezkutuko propaganda ekintzak egin behar izaten genituen. Hortik miliziarara pasatu nintzen eta hemen jada propaganda armatuarekin hasi nintzen. Azkenik, gerrillan sartu eta 10 urte eman nituen gerran. Garai hartan, nahiz eta nire erantzukizunak ez zeuden emakumeekin bakarrik lotuak, emakumeen erakunde baten sorrera bultzatzea lortu nuen. Onartzen dut ez zela emakumeen eskubideengatik soilik, bizi genuen prozesu iraultzaile horren baitan emakumeon ekarpena handiagoa izan zedin baizik. Emakumeok ez genuen onarpen horrenganako nire hasierako kritika horrek, harreman estua zuen sortzen eta indartzen hasia zen sentimendu feminista horrekin.

1990. urtean, oraindik gerra bukatu gabe, hirira joan nintzen eta bilera batera gonbidatu ninduten, erakunde bat sortzea helburu zuena. Lagun bat eta biok izan ginen hartan eta eztabaidatzeari ekin genion denon artean. Esperientzia benetan bikaina izan zen hura. Hirian bizi zirenak gu alderdiaren ildoaren nolabaiteko bozeramaileak ginela uste zuten. Azaldu genien guk ez ginela inolako bitartekariak eta bilera hartan bertan eztabaidatuko genituela alderdiaren joeraren nondik-norakoak, denon artean. *Zer suposatzen zuen*



emakume izatea garai eta une hartan? Hori izan zen abiapuntua. Batzuk gerrillan eta beste askok herri mugimenduetan arituak ginen jada, nahiz eta jatorri ezberdinak izan denek ezkertiar parte hartzea genuen. Guztiok istorioa latzak genituela ohartarazi ginen, emakumeenganako jazarpen eta baztertzearekin lotuak zeudenak, eta zeharo errepikatzen zirenak askotan. Egun osoa eman genuen galdera berari bueltak ematen.

Alderdiko nire kideek ez zuten ulertzen “Las Dignas” sortu genuen emakume-talde horretan parte hartzearen zergatia, ez zuten ulertzen gure autonomiaren planteamendua. Orduan, zailtasun horiek zirela eta, beste klik bat sortu zen nire baitan. 1990ean, maitasuna eta bizia emakumeen alde ematen jarraituko nuela erabaki nuen, gure eskubideak eta gure xedeak alde batera geratu ez zitezen. Eta hortik aurrera nago hemen.

Landa eremu, hiri edota ikasleen sektoreetako emakumeekin lan egin izan dut. Gaur egun, irakasle lanetan aritzen naiz batzuetan, El Salvadorreko Unibertsitateak Genero Ikasketetan oinarritutako lehen maisutza sortzeko proposamena onartu digu eta sortzen ari garen talde horretako kide ere banaiz.

Nik, beti, Mugimendu Feministatik bertatik aritu naiz lanean. Gizon eta emakumezkoen arteko berdintasun eza lehen lerrora ekartzea lortu dugu, eta hau benetako arazo sozial gisa antzematea. Naturak ezta jainkotasunak bideratutako errealitate bat bezala, baizik eta errotik borrokatu eta behin betiko eraldatu daiteken benetako problema sozial bat, alegia. Honi esker, zenbait legedi aldaketa eman dira ere, hala nola, tokian-tokiko eta nazio mailan politika publiko berrien sorrera. Baliabide ekonomiko hauek, nahiz eta oso urriak izan, beti dira ongietorriak eta, honekin batera, emakumeen aurkako erasoak behar bezala artatzeko zerbitzua ere sortu egin da. Sare sozialen hedapenaren zabaltzea eta emakumeen berdintasun ezak eragindako kalteen aitortzeak dira, nire ustez, lorpenik esanguratsuenak, baita zenbait unetan hauetan eman den erradikalizazioa ere.

Mugimendu feministaren parte sentitzen naiz, oso harro sentitzen naiz gure buruak hezitzeko eta eredu berriak eraikitzeko lortu dugun espazioaz. Gainera, neska gazte ugari osatua dagoen mugimendua gara eta, horrek, zeharo hunkitzen nau. Itxaropen handiko proiektua dugu abian.





Amona naiz, 23 urteko biloba bat dut, gure ildo berean datorrena, eta baita ia 14 eta 8 urteko beste bi gehiago ere; lau alaben ama naiz baita. Haiekiko nolabaiteko konpromisoa hartu dudala esatea gustatzen zait, beste mundu bat eskaini ahal izateko eta behar bezala bizi eta goza dezaten, baina baita borrokatzeko eskubidea izan dezaten ere. Nire bilobetako bat ikastetxean pairatutako zenbait egoeren kontra jaikitzen hasi da jada. 14 urteko gaztetxo bat, edo talde bat alegia, holako ideien kontra asaldatzeko gaitasuna izatea, lortutako beste lorpen oso garrantzitsua dela esan dezaket harrotasun osoz. Lan asko dago egiteke, baina bidea egiten jarraitzen dugu.

Gaur egungo borroka sozialen testuingurua

Une honetan bertan erresistentzia ekintza askori egin behar diegu aurre, lorpenen eta aurrerapenen aurrean indarberritutako eraso kontserbadorea pairatzen ari gara. Ez da ofentsiba leuna, tokian-tokikoa, baizik eta artikulazio globala duena eta, nire ustez, oso garrantzitsua da eraberritze kontserbadorearen ofentsiba horrek duen izaera globala ikustea, hemendik haratago miatzeko gai izatea.

Nik honako hipotesi argia dut: sektore kontserbadore hauek, Berlingo Harresia erorita eta berarekin batera mundu sozialista ere nolabait desagertuz, etsaia erabat lausotu zitzairen eta arerio hauen behar sutsua dute kohesionatzeko. Etsai hau emakumeen borrokan, borroka feministetan edota sexu-disidentzietatik abiatutako borroketan aurkitu dute gaur egun, hauen aurrean kohesionatu eta indartu egin dira berriro ere. Ez dut uste emakumeen gorputz edota ugalketa eskubideak kontrolpean izateko bakarrik egiten dutenik, baizik heterosexual zein orotariko genero hautua dituztenak, gizarte osoak inposatutako kontrol hutsa da. Nire aburuz, ez dute soilik gu zapaltzeko egiten, emakumeen eta sexu-disidentzien gaineko kontrol ideologiko eta sozial hori, gizarte osoaren kontrol-mekanismo bat da. Nahitaezko garrantzia du kontrol hori ze mekanismoren bidez egiten ari diren azaltzea eta, gainera, zer-nolako arriskuak izaten ari den. Gaur egungo egoera honek kontrola, botere instituzional eta politikoa lortzeko estrategia zehatzak ditu, eta oso kaltegarriak izan daitezke zenbait gizarteetan. Gaur egungo Brasilgo herrialdea prozesu hauen eredu argi bilakatu da.

Elite talde hauek balore hauen aitzindari gisa aldarrikatu dira gure herrialdean eta neurritz kanpoko zigor guzti hauek honen ondorio zuzena dira. Haien hitzetan, abortatzeagatik ez



dira zigorrak ezartzen, baizik eta eragindako erailketei erantzuna emateko. Baina, aldi berean, egun 2 eta 8 urte bitarteko zigorrak dituen abortuak, neurrigabeko giza hilketak dituzten 30 eta 50 urteetara igotzeko proposamena bultzatu dute.

Urte batzuen buruan, emakumeen eskubideen aitortze eta modernizazio prozesuen berraketa kasu erabakigarriak atzeratu dituzte. Baina ohartzen joan naiz, azken finean, lortu dutena mundu osoko gizarteak haien nahietara moldatzea izan dela. Hori dela eta, egunerokotasunean erresistentzia guztiak edota mobilizazio soziala, hedabideetan zein sare sozialetan, bezalako ekintzak guztiz beharrezkoak bilakatzen dira gure testuinguru honetan.

Amesten dugun mundua

Eskubideak defendatu beharrik ez genezaken mundu bat izatea nahi nuke nik. Hauek pertsona guztientzat aitortuak izan zitezen eta errespetuzko eta bidezko bizikidetzan bizi ahal izan gaitezen. Gustatuko litzaidake emakumeek askatasun osoz definitu ahal izatea haien bizi proiektuak, aske eta osotasunean bizi ahal izatea amatasuna, eta ez ezarritako amatasun bat. Ama izan nahi ez duten emakumeek inposizio sozial hori bizi behar ez izatea nahi nuke, baizik eta haien nahiak modu positiboan bizi eta zehaztu ahal izatea.

Emakume zein gizonezkoak errespetu osoz biziko garen mundu bat dut nik buruan. Gure oinarritzko eskubideak berez aitortu eta bermatuak izan daitezkeen, inor bereak diren eskubide hauek lortzeko borrokatu egin behar izan ez dezan mundu bat. Non emakume, gazte zein gizon, bere ametsak sortu, zehaztu eta, azken finean, lortzeko ahalmena izan dezaten.